

GARAPENERAKO HEZKUNTZA

Aurtengo ekitaldian amaitutzat eman du Garapenerako Hezkuntzako lan-taldeak 2004ean ekindako proiektu europarra, eta hasiera eman dio arloko plan estrategikoak barne hartzen den proiektu berri batean

TrebaKintza. Tresna eta baliabide berriak, garapenerako hezkuntzako praktikak indarberritzeko. ACSUR-Las Segovias (Asturias eta Madril) eta ASAL (Erroma) erakundeekin batera egindako, eta Europako Batasunak diruz lagundutako programa, hiru urteko iraupenaz. Programa 2007ko lehen hiruhilekoan amaitu da, honako hiru argitalpenak kaleratzearekin batera:

- ***La educación transformadora ante los desafíos de la globalización. Actas del III Congreso de Educación para el Desarrollo. Vitoria-Gasteiz, 7, 8 y 9 de diciembre de 2006 = Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean. Aktak Garapenerako Hezkuntzari Buruzko III Kongresua. Vitoria-Gasteiz, 2006, abenduak 7, 8 eta 9.*** Argitalpen elebidun honek (euskara-gaztelera) ***Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean Garapenerako Hezkuntzari Buruzko III Kongresuan*** aurkeztutako Hitzaldietako testuak biltzen ditu. Bertan jasotzen dira baita Mintegi eta Tailerretan garatutako lanak, eta osoko azken bilkuran aurkeztu ziren Ondorioak. Kongresua Gasteizen izan zen, 2006ko abenduaren 7tik 9ra bitartean.
- ***Diccionario de Educación para el Desarrollo.*** Liburu honek corpus teoriko lagungarria eskaini nahi die hezkuntza-ikuspuntu horrekin konprometituta dauden pertsona eta kolektiboek. Hiztegiak, batetik, Garapenerako Hezkuntzak berezko duen diskurtsoaren oinarriko kontzeptu egituratzaileak identifikatu eta biltzen ditu. Bestetik, termino bakoitzari buruzko esangura, xehetasun, osagarri, giltzarri eta eztabaida garrantzitsuenen berri ematen du, ez bakarrik aldiro terminoa ulertzeko, baizik eta, batez ere, ikuspegi kritiko batetik interpretatu ahal izateko. Egileen zerrenda luzea da, eta diziplina anitzekoa.
- ***Garapenerako Hezkuntzari buruzko Esperientziak = Experiencias de Educación para el Desarrollo;*** liburua argitara eman da baita ingelesez (*Experiencias in Development Education*), eta italieraz (*Esperienze di Educazione allo Sviluppo*). Argitalpen honetan bildutako esperientziak Garapenerako Hezkuntzaren alorreko praktika eta programa ugarien bilduma txiki bat baino ez da. Esperientzia hauek Garapenerako Hezkuntzan diharduten eragileen lana indartu, eta jarduera hezgarrien eta gizartea sentiberatzeko kopurua eta eragina areagotzeko asmoz eginiko liburua da. Bertan jasotzen diren 15 esperientziek hainbat informazio ematen dute: aurrera eramane duen erakundeari buruzkoa, praktikaren deskribapena, eta lotutako emaitzak. Liburua hiru ediziotan eskuratu dateke: euskara/gaztelaniaz, ingelesez, italieraz.

Ikerkuntza, eztabaida, eta esperientziak, hiritartasun globalaren aldeko Hezkuntzan.

Proiektu honen bidez azken hezkuntza legeak (LOE) zeharkako ikuspegiak –hala nola Garapenerako Hezkuntza, eta Kulturen Arteko Hezkuntza- lantzeko eskaintzen dituen aukerak aztertu nahi ditugu. Hainbat jardueraren bitartez, eztabaida ireki dugu joera eta ikusmolde horiek hezkuntza formalean integratzearen alde, eta hezkuntza formalaren eta ez formalaren artean zubiak ezartzeko asmodun tokiko esperientziak lantzen denbora luzez diharduten eragileen artean. Asmo horren baitan, honako jarduerak burutu ditugu 2007an:

- ***Hiritartasun kritikoa eraiki nahian. Hezkuntzaren inguruko eztabaida eta esperientziak*** izeneko aurrez aurreko mintegia (presentziala). Mintegiaren asmoa hainbat hezkuntza

eragile bildu eta elkarren artean hausnarketa, eztabaida eta esperientziak trukatzea da. Mintegian 39 pertsonen hartzen dute parte; hilean behin biltzen da, 4 orduko saiotan. Azken hiruhilekoan hiru saio egin dira:

Diagnóstico compartido. Hegoa.

Interculturalidad, ¿eso qué es? Pilar Folgueiras (GREDI-Bartzelonako Unibertsitatea).

El discurso de la diversidad. ¿Qué entendemos por calidad en educación? Francesc Carbonell (Pedagogoa).

- *La Educación a debate* izeneko hitzaldi-zikloa, Gasteizko Hika Ateneon. Hilero-hilero dibulgazio-hitzaldi sorta bati ekin diogu, kaleko jendeari irekiak. Hona jarraian orain artekoak:
 - **Retos y caminos hacia una sociedad intercultural.** Xabier Aierdi (Ikuspegi, EHU).
 - **Una educación para la cohesión social.** Francesc Carbonell (Pedagogoa).
- *Hiritartasun kritikoa eraiki nahian. Hezkuntzaren inguruko eztabaida eta esperientziak* izeneko on line mintegia (birtuala). Presentzialaren asmo pedagogiko berberarekin, beste bat ireki dugu sarean, mintegi birtuala alegia; 21 partaidez osatzen da. Horretarako plataforma digital bat prestatu dugu: www.mundubildu.org web-tokia. Horretarako Gasteizko Sareguneren laguntza izan dugu, tresna hori sortzeko zerbitzu teknikoa eta behar besteko laguntza eman digu.

Garapenerako Hezkuntzako formatzaileen epe luzeko Prestakuntza. Polygone.

Formazio-programa hau 2007ko martxoan amaitu zen, jarraia aipatuko diren erakundeek suspertuak Garapenerako Hezkuntzaren eta Hezkuntza Popularraren aldeko Nazioarteko Sarearen (Polygone) markoaren barruan: ITECO (Brusela), CIDAC (Portugal), CIP (Madril) eta HEGOA (Euskal Herria). Alabaina, programa amaitu arren, Polygone partzuergoak Nazioarteko Sarearen ebaluazio- eta koordinazio-jarduerei jarraipena ematea erabaki zuen. Azken urteotan, hausnarketarako aldi bat ireki da, europar partzuergoko kideen artean azken hamar urteetan egindako lanari buruz, www.webpolygone.net izeneko web-orria indarberritu egin da (orain foroak ea berriak ere jasoko ditu), eta bizitu berriro tokiko sarearen dinamizazioa, Kantauri Itsasertzeko erakundeentzako Garapenerako Hezkuntzari buruzko eztabaida eta hausnarketa espazio gisa bihur dadin.

Parte hartzea formazio-jardueratan. Lan taldeko kideek parte hartu dute, irakasle edo hizlari, hainbat formazio-jardueratan; besteak beste honako hauetan:

- Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa, Nafarroako GGKEen Koordinakundeak antolatua.
- Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa, Edualter-ek antolatua. Bartzelona.
- GHri buruzko Irizpenaren inguruko lantegia, Hegoak antolatua Kataluniako GGKEen Federazioarentzako (FCONGD) antolatua. Bartzelona.
- Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa, Asturiasko Printzerriko GGKEen Koordinakundeak antolatua.
- Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa, Círculo Solidariok antolatua. Donostia.
- Garapenerako Hezkuntzako Masterra. Granadako Unibertsitatea.
- Parte hartzea AECIko Garapenerako Politikak Planifikatu eta Ebaluatzen Zuzendaritza Nagusiak (DGPOLDE) Garapenerako Hezkuntza eztabaidatzeko asmoz antolatutako Tailerlean. Madril.
- Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa, Kantabriako Unibertsitateak eta Hezkuntza Sailak

Valdecilla-n (Kantabria) antolatua.

- Garapenerako Hezkuntzan Generoari buruzko tailerra, MZP erakundeak antolatua. Kordoba.
- Bideo-konferentzia, Comillasko Pontifize Unibertsitateak eta Madrilgo FEREk antolatutako Garapenerako Hezkuntzako Unibertsitate-Espezialista Ikastaroan.

Gainera, Garapenerako Hezkuntzari buruzko moduluak irakatsi ditugu Garapena eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Masterrean eta Garapenerako Lankidetzarako Estrategiei, Eragileei eta Politikei buruzko On Line Masterrean, biak ala biak Hegoak antolatutakoak.

Parte hartzea Amanda Plataforman.

Amanda Plataformak Gasteizen kulturen arteko elkarbizitzaren gainean ideiak, ikuspegiak eta esperientziak trukatu nahi dituzten pertsona eta kolektiboak biltzen ditu. Amanda Plataforman bat egiten dute izaera desberdineko lan-proiektuek, baina guztiak Alde Zaharrean gauzatzen dira, eta guztiek zerikusia dute guganaino babesgabe eta egoera txarrean etorri diren pertsonen harrera egin eta integratzen laguntzarekin. Honako taldeek osatzen dugu Amanda Plataforma: EHUren Praktikak Lankidetzaren Proiektuetan egiteko Programa; Saregune; Landatxo Gizarte Etxeko Onarritako Zerbitzu Soziala; Dantzaren Bitarteko Emakumeen Elkargunea (Campillo Kultur eta Kirol Elkartearen baitakoa); Ramón Bajo LHiko Eskolaz Kanpoko Jardueren Programa; Dunia Topaketa; eta Hegoako Garapenerako Hezkuntzako saila.

Bi urteko ibilbidean, Amanda Plataforman eztabaida ireki dugu kulturartekotasunaren teoriaren eta praktikaren gainean, beti ere alde zaharrari eta bertako arazo eta auzietan eragin asmoz, eta baita beste talde kolektiboen proiektuak ezagutzeko ere, beraiekin koordinazio- eta lankidetzabideak ireki, eta elkarren artean sinergiak sortzeko gogoz. Hartara, nahitaezko iruditu zaigu gure geure praktikak eta plataformako partaide bakoitza mugiarazten gaituen baloreak, eta planteatzen ditugun jardueren atzeko irizpide hezitzaileak aztertuz hastea. Amandak alde zaharreko lan-jarduerak birplanteatzea du asmo, ikuspegi zabalago batetik, guztion artean konpartitutako logika batetik.

Eztabaida eta kontsentsua dira gure lan-metodologiaren oinarria, lortutako akordioek Amanda osatzen duten kolektiboen proiektuak aberats ditzaten. Kolektiboen arteko ikaskuntza dialogiko horrek partaideen erantzukizun pertsonal eta soziala indartzen du, hala nola, beren autonomia Plataforman baitan.

Immigrazioaren Euskal Foroa

2007an zehar **Immigrazioaren Euskal Foroaren** (EAEko Herritar Etorrinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa) hezkuntzako batzordean hartu izan dugu parte, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Zuzendaritzak eskuratu digun espazioan; bertan parte hartzen du baita EJKo Hezkuntza Sailak. Foro horretan, “Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako programa” kontrastatu izan dugu, beste erakunde eta elkarte batzuekin batera. Ekarpenean eta iradokizun positiboak egiten saiatu gara, beste kultura batzuetatik euskal hezkuntza-sistemara etorriko diren ikasle harrera eta trataera aurrerantzean landuko dituzten politiketan.

Gasteizko Udalaren Baliabideen Gida eguneratzea.

Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eskatuta, Hegoak eguneratu egin du Sentiberatze Baliabideen Gisa, erakunde horren web-orrian eskuragarri dagoena.